

'Xerra': kultur proiektu berria Durangaldean

Ane Lusarreta eta Laida Zapre donostiarrek lanerako estudioa eta herritar guztientzako kultur gune bat zabaldu dute Zaldibarren. Proiektua gaur inauguratuko dute. / 2-3



**"MIHISEA HARTU
ETA MARGOTU,
HORIXE DA
BORROKATZEKO
DUDAN MODUA"**

Rouhaifa Kassem artista palestinarra Berrizen egon da bizitzen hainbat hilabetez; bertan margoturiko lanak Zaldibarren egongo dira ikusgai / 6

Rouhaifa Kassem.



Egitarau zabala Durangoko bonbardaketa gogoratzeko / 4



"Jokalari guztiak ilusionatuta ikusten ditut"

Aketza Gonzalezek Durangoko Kulturalaren gidaritza hartu duenetik taldeak lau partidu daramatza galdu barik / 20



Aketza Gonzalez, Tabira futbol zelaian.

Kapitanena auzo-etxeke aurreproiektua aurkeztu dute / 4

Abadiñoko etxebizitza publikoak eraikitzeke prozesua martxan da / 10

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Durangaldeak beste proiektu kultural bat du gaurtik: *Xerra*. Ane Lusarreta eta Laida Zapre donostiarrek gidaturiko proiektua da, ardatz bi dituena: batetik, Xerra estudioa dago, sortzaileek euren lanetarako, ikus-entzunezkoen garapenerako eta diseinu lanetarako baliatuko dutena. Bestetik, izen bereko gunea dago, zaldibartar eta eskualdeko herritar guztiei begirako kultur gune ireki eta zabala. Azken honetan, erakusketak, tailer artistikoak, eta zinema eta gastronomia batzeko jardunaldiak egingo dituzte. Proiektua Zaldibarko plazan atondu dute, lehen Bodeguilla tabernan izandakoan eta haren pareko lekolean. Lusarretak eta Zaprek gaur inauguratuko dituzte instalazio biak, kultur eskaintza zabalagaz.

'Xerra' proiektuak gaur zabalduko ditu ateak. Zelan definituko zenukete proiektua?

Ane Lusarreta: Gu, berez, Xerra estudioko kideak gara, eta lokala alokatu dugu gure lana garatu ahal izateko. Gure estudioaren parean beste lokal bat dago, eta hor gune kultural bat jarri dugu, mundu guztiari irekita dagoena. Azken hori erabilerari anitzeko gela izango da, kultur gileak eta kulturazaleak sartzeko balioko duena. Azken finean, guri gustatzen zaiguna egiteko eta guk jasotzea nahiko genukeena eskaini ahal izateko lekua izango da.

Laida Zapre: Hala da, bai. Proiektu bakarra da, baina bi adar dituena. Alde batetik, Xerra estudioa dago, gure lantokia, eta, bestetik, artea eta kultura zaldibartarrei eta Durangaldeko herritarrei zabaltzeko asmoz irekiko dugun eremua. Zaldibarko bi etxabe baliatuko ditugu horretarako.

Zuek jasotzea nahiko zenuketena eskainiko duzuela diozue. Zer da bertan eskainiko duzuen?

L.Z.: Kultur eremuak hiru ardatz izango ditu. Batetik, erakusketa iraunkorak izango ditugu, urtean hiru, lau hilabeteko iraupena izango dutenak. Bestetik, Zinejara edo Janzinema egitasmoa dago, zinema eta gastronomia batuko dituen esperientzia. Hau da: pelikula ikusi bitartean, ikus-entzuleek filmean agertu daitezkeen errezetak edo moka-duak jateko aukera izango dute, denbora errealean. Horrenbestez,



Ane Lusarreta eta Laida Zapre, Xerra estudioan.

"Guk jaso gura genukeen kultur eskaintza eman gura dugu"

ANE LUSARRETA ETA LAIDA ZAPRE 'XERRA' PROIEKTUA

Ane Lusarreta eta Laida Zapre donostiarrek 'Xerra' proiektua sortu dute Zaldibarren. Gaur inauguratuko dute egitasmoa, musika, tatuaje, performance eta jan-edan artean

"ERAKUSKETAK, 'JANZINEMA' JARDUNALDIAK ETA TAILERRAK EGINGO DITUGU"

saioretatik pelikula bat ikusita eta gutxi gorabehera afalduta irtengo dira hona datozenak. Horiek hiru hilean behin emango ditugu.

A.L.: Ikusi, entzun... eta oraingoan, baita jan ere! Esperientzia sensorial erabatekoa da hemen eskainiko duguna. Ikusleak ten-

"ZALDIBARTARREK PRIMERAN HARTU GAITUZTE, ETA UDALAREKIN LAN EGITEA ERRAZA DA"

tsio hori sentituko du, platerak edozein unetan irten daitezke eta, filmeko istorioaren arabera. Hori bai: kabiarririk ez espero! (barrez)

L.Z.: Azkenik, tailer monografikoak emango ditugu. Hilean bat, asteburuetan. Askotariko arte diziplinak landuko ditugu: serigrafia, argazkilaritza eta zianotipia, besteak beste. Horietan parte hartzeko, izena eman beharko da alde aurretik. Aipaturiko guztiak interesgarriak dira, espazio beraren bueltan askotariko jendea batzeko aukera eskaintzen duelako.

Eta hori guzti hori zuek biok bakarrik eskainiko duzue?

A.L.: Iruditzen zait ideiak eta oso lagun onak ditugula Xerran. Zerbait bururatzen zaigun aldiru geure buruari galdetzen diogu: "Ea, nor sartuko dugu saltsa honetan?". Jazmine proiektuan, adibidez, Xabi Larrazabalek lagunduko digu, gure lagun-min eta lankide ohiak. Zaldibarko lagun-min Leirek ere bidean lagunduko digu. Iruditzen zait hori guztia lehen esandakoaren ildotik doala. Tokiko sorkuntza berri emango dugu, baina ez Bilboko erdigunean, Zaldibarraren baino, ondoan baratza, udaletxea, umeak plazan jolasean eta taberna daudela.

Lehenengo kultur egitasmoa bihar bertan hasiko duzue, inaugurazioan. Noren erakusketa bisitatu ahal izango da?

L.Z.: Intza Arakistain azkoitiarrarena. Arte Ederrak ikasi ditu, Bilbon bizi da, eta, horrez gainera, Nize musika taldeko bateria-jotzailea ere bada. Bere margolanak ikusi ahal izango dira hemen. Oso pertsona animatua da, eta ukitu punkia du. **Bestalde, Xerra guneaz gainera, zuen lantokia ere izango duzue Zaldibarren, zuen estudioa.**

A.L.: Xerra estudioa ez da berria. Berria dena Zaldibarrera etortzea da. Komunikazio, argazki eta ikus-entzunezkoen estudioa gara, eta bi-hiru urte daramatzagu honetan. Orain arte komunikazioari loturiko lanak egin ditugu, diskoetako eta biniloetako azalak, kartelak, argazki saioak, Donostiako Feministaldiko argazkien erregistroa, Feministaldiko komunikazioa... Horrez gainera, dokumental bat egin genuen Igeldoko Undermount gune autogestionatuan. Bertan, hainbat emakumek zeramika lanak egiten dituzte garai bate-

ko labe zahar batean. Dokumentala egin genuen haiekin, *Dra-goiak* izena duena. Ines Osinagarekin ere lan ugari egin dugu. *Itsasoa da bide bakarra* dokumentala, adibidez, berarekin egin dugu.

Eta hara non, donostiar biren proiektuak Zaldibarren lur hartu duen.

A.L.: Bai, askotan galdetu dizkigute halakoak. "Nolatan bi donostiar Durangaldean bizitzen?", "Zergatik?". Eta zergatik horrek oso isats luzea du. Laidak eta biok *EITB Kulturari* lan egin genuen. Miramongo estudioetan lehenik, eta Bilboko estudioetan gero. Gaur egun, ekoizpen hori Zornotzan egiten dute. Ondoren, Elorrioko baserri batean hasi ginen bizitzen, lagunartean. Gero, Abadiñoko baserri batean, eta gutxinaka-gutxinaga, konturatu gabe, zazpi urte egin ditugu Donostiatik kanpo. Horregatik eta eskualdearengatik beragatik gaude hemen, Durangaldea benetan ederra dela iruditzen zai-gulako. Niri, adibidez, mendia izugarri gustatzen zait eta Atxarteko inguruak, Urkiolako Parke Naturaleko inguruak, zoragarriak dira. Gainera, zaldibarta-

rrek egundoko harrera egin digute, beso-zabalik hartu gaituzte. Udalarekin lan egitea ere oso erraza da. Pozarren gaude. L.Z.: Batzuetan, gauzek duten baino pisu askoz handiagoa dutela pentsatzen dugu eta ez du horrela izan beharrik. Kontu asko zoriz edo intuizioz gertatzen dira. Hasieran, estudioa muntatu ahal izateko lokalak begiratzen egon ginen Abadiñon, Durangon, Berrizen,... baina prezioak oso garesti zeuden, gure eskumenetik kanpo. Azkenean, Zaldibarko lagun batek, Leirek, leku honi buruzko informazioa eman zigun, eta hementxe atondu dugu Xerra. Horrekin batera, bada azpimarratu nahi ditudan bi ideia, irekiera prozesu honetan etengabe azpimarratu ditugunak: "bakarrik ezin da, lagunekin bai", eta "hirietan ezin da, herrietan bai".



Ikusi bideoa

Kultur ekitaldi ugari inaugurazioan

Xerra proiektuak gaur arratsaldean, martxoak 14, hasiko du bere ibilbidea, 16:30ean. Ordu horretatik aurrera Zaldibarko plazara gerturatzen denak askotariko ekitaldi kulturalak topatuko ditu bertan. Ane Lusarretak iragarri duenez, "ospakizun itzela" izango da. Batetik, lokaletako batean *El rayo verde en una tienda de alfombras* erakusketa inauguratuko dute, Intza Arakistainen lana. Ordu horretan bertan, pareko lokalean, Maite Rosende eta Anna de Abajo tatuatzaileek *Flash Tatoo* jardunaldia egingo dute; hau da, tatuaje-saioak egingo dituzte bertaratzen direnentzat, hitzordurik hartzeko beharrik izan barik. Eta, bien bitartean, lokal bien arteko eremuan Bihotza musika-jartzailea doinu elektronikoak ipintzen egongo da. 18:15ean, Danele Sarriugartek eta Miren Narbaizak *Kaixo, Karis* testu musikatuak eskainiko dituzte. Emanaldi horren bigarren estreinaldia izango dela aurreratu dute Lusarretak eta Zaprek.



Danele Sarriugartek (ezkerrean) proiektuaren irekieran parte hartuko du.

Azkenik, Sorgin tabernan, musika kontzertuak egongo dira 20:30ean hasita. Xabier Badiolak eta Mark Dutik egingo dituzte emanaldiok. "Lagun ugari batuko gara, eta ziurtatu dezakegu giro polita egongo dela", iragarri dute.

Inauguraziora batzeko deia
"Etorri, hurbildu", gaineratu du Zaprek: "Oso ilusionatuta gaude proiektu berri honekin, eta

aitzakia paregabea izango da ostiral arratsalde polit bat pasatzeko, apropos-aproposa asteburua modu ederrean hasteko". Bestalde, inaugurazio ekitaldia alde batera utzita, urte osoan zehar bertan antolatuko diren ekintzetan parte hartzera deitu dute Xerra proiektuko kideek. "Erakusketak, tailerrak eta Janzinema jardunaldiak zuen zain daude", esan dute.

ANTZERKIA

KRISTALEZKO ZOOA

Tennessee Williams

MARTXOAK 21-23

ESTREINALDIA EUSKARAZ

GARAREN babesaz

LORALDIA FESTIBALAREN kolaborazioarekin

Moldaketa eta zuzendaritza:
Natalia Menéndez

Itzulpena eta euskerara egokitzea:
Kepa Errasti

Antzezleak:
Mikel Losada
Ione Irazabal
Miren Gaztañaga
Arnatz Puertas

Musika:
Luis Miguel Cobo

Eszenografia:
Monica Boromello

Ikus-entzunezkoak:
Gheada

Figurinista:
Tania Tajadura

Argiztapena:
Juan Gómez Cornejo

Zuzendari laguntzailea:
Getari Etxegarai

ARRIAGA ANTZOKIAREN EKOIZPEN BERRIA



Bilbao

EL CORREO GARA

Datu bako

Bizkaia SEIZ

inaem

mondagor Lingua

FCC

TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA



Durangoko Udaleko eta haibat elkartetako ordezkariak, eguaztenean, udaletxean egindako aurkezpenean.

Egitarau zabala Durangoko bonbardaketa gogoratzeko

Durangoko Udalak eta elkarteek ekintza sorta zabalagaz gogoratu dute Durango bonbardatu zuten 88. urteurrena. Gerediaga Elkarteak Saibigaineko prospekzioetan aurkitutakoa ezagutaraziko du, erakusketa, berbaldi eta bisita banaren bitartez

Kapitanena auzo-etxeko aurreproiektua aurkeztu dute

Udalak Kapitanena baserria eraberritzeko eta bertan auzo-etxea sortzeko aurreproiektua aurkeztu du. Udaletik azaldu dutenez, egungo diseinuak "aurrekontu optimizatua" izango du eta inbertsio estimatua "1.028.200 eurotik 833.615 eurora" murriztuko dute

E.H. DURANGO

Durangoko udal ordezkariak San Faustoko bizilagunekin batu ziren, martxoaren 6an, auzoko elizan. Udal arduradunek Kapitanena baserria auzo-etxe bihurtzeari buruzko xehetasunak eman zizkieten han baturikoei. Etorkizuneko azpiegitura solairu bakarrekoa izango dela azaldu du udalak, eta, horretarako, eraikin gehigarri bat egingo dute, baserriari atxikita joango dena. Hau da, baserriko beheko solairuak eta atxikitako eraikinak bat egingo dute. Aukera horregaz, auzo-etxearen "azalera erabilgarria optimizatzea eta diseinu irisgarriagoa, seguruagoa eta

balioaniztunagoa bermatzea" gura du udalak. Jakinarazi dutenez, hirigintza arloan egin beharreko izapidetze aldaketak martxan dira; fase hori sei hilabeteko epean amaituta egotea aurreikusitua dute.

Era berean, udalak auzo-etxearen ezaugarrien berri eman du: egungo baserrian bilera gela, irakurketa gela independentea, bainugelak, biltegia eta galdara gela egingo dituzte; bestalde, atxikitako eranskinean erabilera anitzeko gunea egingo dute. Azken hau 88 metro karratuko izango da. Eraikin multzoak sarbide bi izango ditu. Parketik eranskinera sartu ahal izango da, eta atzeko

aldeko espaloitik eremu bietera. Beirazko hall edo ataria egingo dutela azaldu dute udal iturriek.

Sara Oveja Lurraldeko zinegotziaren esanetan, Kapitanena "funtsezko gunea" da San Fauston. Eraberritzeagaz, eraikinari "funtzionaltasun, irisgarritasun eta segurtasun handiagoa" ematea gura dute, hain zuzen ere. "Auzoko bizilagunen elkarteagaz elkarlanean aritu gara, haien benetako beharriaz zane erantzungo dien espazio bat diseinatzeko, baliabideak optimizatuz eta adin guztiarako eroso eta erabilera anitzeko izango den gunea bat bermatuz", azaldu du Ocejak.

J.Derteano DURANGO

Durangoko Udalak eta askotariko elkarte eta eragileek egitarau zabala antolatu dute aurten ere Durangoko bonbardaketaren 88. urteurrena gogoratzeko. "Martxoaren 31 gure memoria kolektiboan ondo grabatuta jarraitzen duen eguna da eta horrela izaten jarraitzea gura dugu", adierazi zuen Mireia Elkoroiribe alkateak aurkezpenean. Ildo horretatik, *Durangoko emakumeen kartzela: Herri baten memoria dokumentala* (Bideografik) proiektatuko dute martxoaren 27an, Zugaza Zinemaren.

Egitarauaren barruan, hilaren 21ean, EHUKO historialariak diren Gurutze Ezkurdiak, Karnele Perezek eta Begoña Bilbaok *Emakume Abertzale Batza* lana aurkeztuko dute. Ondoren, Maria Gorosarri Gonzalezek ponentzia bat egingo du. Astarloa Kultur Taldeak antolatu ditu ekimen biak.

Udalaren ekitaldi instituzionala martxoaren 31n izango da, 12:00etan, Ezkurdin. Bertan, Durangoko eta Gernikako bonbardaketetako biktimak omenduko dituzte.

Saibigaineko aurkikuntzak

Gerediaga elkarteak ekintzak antolatu ditu Saibigainen egiten dabilzan lanak ezagutarazteko. Martxoaren 25etik 30era, Saibigaineko indusketetan aurkitutako elementuak erakutsiko dituzte Kurutzesantu museoko erakusketan. Martxoaren 29an, Kepa Ganuzak (Euskal Prospekzio Taldea) eta Lourdes Herrastik (Aranzadi) Saibigaineko prospekzioko emaitzak azalduko dituzte berbaldi batean. Azkenik, martxoaren 30ean Saibigainera igoko dira, lanen gaineko xehetasunak bertatik bertara ezagutzeko.

Durangoko bonbardaketako aztarnak ezagutzeko, bisita gidatuak antolatu dituzte. Bost ikastetxek eta 331 ikaslek parte hartuko dute. Publiko orokorrari zuzenduriko beste bisita bi ere egingo dituzte martxoaren 29an. Doakoak dira, baina aurretik izena eman beharra dago.

Azkenik, martxoaren 31n oroi-men ekitaldia egingo dute Andra Mariko elizpean. Bonbardaketan hildakoak ez ezik, Jon Irabazal ere gogoratuko dute.



Mikel Porto, betaurreko kaxekin.

Sei kaxa betaurreko solidario Durangotik Madagaskarrera bidean

E.H. DURANGO

Aurtengo *Egin zaitez ikusgai* kanpaina arrakasta handikoa izan dela jakinarazi dute egitasmoaren bultzatzaileek. Mikel Porto eibartarrak, Baobab Gobernu Kanpoko Erakundeagaz eta Durangoko Udalgaz elkarlanean, sei kaxa bete betaurreko bidali ditu Durangotik Madagaskarrera.

Aurrekontu parte hartzaileen prozesua zabaldu dute Durangon

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak 600.000 euro erabiliko ditu datorren urteko udal aurrekontuan herritarren proposamenak txertatzeko. Zerbateko hori udalerriko sei auzotan banatuko dute, "era ekitatiboan". Hori horrela, auzo bakoitzak (San Roke, San Fausto, Landako, Madalena, Erdialdea eta Tabira) 100.000 euro izango ditu.

Azterketa tekniko

Herritarrek apirilaren 16ra arteko epea izango dute ideiak eta proposamenak Durangoko Udalari helarazteko. Behin horiek jasota, udal teknikariek proposamenak aztertuko dituzte. Maiatzaren hasieran, aukeraketa fasera irtengo diren proiektuak zeintzuk izango diren jakinaraziko du udalak. Baten batek proposamena behar den moduan aurkezteko zantzarik badu, HAZ zentroan jasoko ditu argibideak.

Euskara sustatzeko gakoak Kike Amonarrizen eskutik, Durangon

Soziolinguista euskaltzalea Arte eta Historia Museoan izango da martxoaren 26an, Euskaraldiaren aterkipean

Ekaitz Herrera DURANGO

Kike Amonarrizek euskara sustatzeko gakoak eta erronkak aletuko ditu martxoaren 26an, Euskaraldiko kideek gonbidatuta. Soziolinguista euskaltzale ezaguna Arte eta Historia Mu-

seoan izango da, bertaratzen direnei euskararen erabilera aktibatzeke proposamenak eta tresnak eskaintzen. Jardunaldiko antolatzaileek azaldu dutenez, honako galdera hauei erantzuten ahaleginduko dira:

"Zeintzuk dira erronkak euskararen sutapenean?", "Zein ekarpen egingo du Euskaraldi honek?" eta "Zelan erakarri jende berria?". Berbaldia 18:30ean hasiko da.

Euskaraldia maiatzaren 15etik 25era egingo da Euskal Herriko luze-zabalean. Bertan parte hartzeko inskripzio epea zapatu honetan zabalduko dute, martxoak 15, euskaraldia.eus atarian. Hizkuntza ohiturak eraldatzeko ariketa erraldoiak laugarren aldia du honako hau. Lehenengo udaberri sasoiak.



Kike Amonarrizen berbaldi bat Abadiñon, 2023ko urrian.



Egitasmoaren bultzatzaileak, eguazteneko agerraldian.

Minbiziaren kontrako 'Vida' antzezlana jokatu dute Durangon

Ekitaldiak 10 euroko sarrera solidarioa izango du. Baturikoa minbiziaren aurkako ikerketarako izango da

Ekaitz Herrera DURANGO

Apirilaren 30ean, kultura eta elkartasuna batuko dituen antzezlana taularatuko dute Durangon: *Vida*. La Red Teatro konpainiak taularatuko du obra, Minbiziaren Aurkako Elkartegaz eta Durangoko Udalagaz elkarlanean, eta ekitaldi solidarioa izango da. Izan ere, 10 euroko sarrera solidarioa ordaindu beharko da antzezlana ikusteko, eta baturiko diru guztia minbiziaren aurkako ikerketara eta gaixoei eta euren senideei laguntzeko zerbitzuetara bideratuko dute.

Antzezlanean bertan ere oso presente egongo da minbizia. "Lehenago bikote izandako pertsona bik topo egingo dute berri ere, eta euren bizipenak gogoratzen hasiko dira. Bizitzako une gazi-gozaok eta momentu gogorrak izango dituzte aipagai. Obra dibertigarria da

hasieran, baina istorioak aurrera egin ahala hunkidura nagusituko da ikusleengan", aurreratu du Juanma Canok. Bera da obrako aktoreetarikoa; Maite Lorenzo beste bat. Konpainiako kideek idatzi dute istorioa, eta Mikel Areitioaurtenak zuzendu. Lorenzok azaldu duenez, obra idazten hasi zirenean birrikako minbizia diagnostikatu zioten bere aitari: "Obrak komedia zantzuak ditu, baina ibilbide ikaragarri horren berri ere ematen du. Iruditzen zait minbiziaren prozesuko gako guztiak jasotzen dituela. Oso momentu gogorrak daude, baina aldi berean ederrak ere bai", zehaztu du.

Vida Durangon taularatuko duten lehenengo aldia izango da. Sarrerak martxoaren 19an ipiniko dituzte salgai. Jesica Ruiz alkateordeak obra ikustera joatera deitu ditu herritarrak.

Adinekoengan erorikoak prebenitzeko estrategiak eta esku hartzeko neurriak

NAIARA FERNÁNDEZ. MEDIKU GERIATRA. IMQ Igurcoko Asistentzia-zuzendaria
ISMENE ARRINDA. FISIOTERAPEUTA. IMQ Igurco Orue egoitza soziosanitarioa

IMQ Igurco Orue

Ererikoa nahi gabeko gertakaria da, pertsona bati oreka galarazten eta, ondorioz, lurre-ra edo beste gainazal batera jaustea eragiten diona. Sindrome geriatriko nagusietako bat da, eta eragin handia du, batez ere, 80 urtetik gorakoengan eta egoitza batean daudenengan, horien bizi-kalitatean inpaktu argia baitu. Izan ere, erorikoek, askotan, elkarren segidako gertakari kaltegarriak azkartzen dituzte, eta, azkenean, horiek mendekotasun funtzionala ezartzea eta osasun-laguntza eta laguntza soziosanitarioaren beharra areagotzea eragiten dute.

Askotariko faktorek jartzen dute pertsona bat erortzeko arriskuan. Hala bada, diziplina anitzeko talde batek aztertu beharko ditu erortzeko arriskua eta horri ekiteko modua, balorazio geriatriko integral baten bidez, eta, horretarako, alderdi kliniko, funtzional, sozial eta psikologikoei dagokienez pertsonak dituen gaitasunak eta beharrak identifikatu ditu. Horrela, arriskuak eta horiei ekintza zehatzekin heltzeko helburuak zehaztuko dira.



Ererikoak hezur-hausturen ohiko kausa dira. ADIMEN ARTIFIZIALAGAZ SORTUTAKO IRUDIA

Erortzeko arriskua murrizteko tresna eraginkorra dela erakutsi du ariketa fisikoak. Osagai anitzeko programek, hots, hainbat ariketa fisiko mota bateratzen dituztenek, hainbat alderdi, hala nola erresistentzia, muskulu- indarra, oreka eta malgutasuna landuz lortzen dituzte emaitzarik onenak.

Gainera, nutrizio-egoera optimizatzea eta erortzeko arriskua areagotu dezaketen botikak (benzodiazepinak, adibidez)

kentzea neurri lagungarriak izan daitezke.

Beste esku-hartze kliniko bat osteoporosi-tratamendu bat ezartzea izan daiteke, ereriko batean hezur-hausturaren arriskua minimizatzen.

Halaber, ingurumen-faktoreak hobetzeak, esaterako argiztapen egokia, lurzoru labaingarriak saihestea eta oinetako itxiak eta irristagaitzak erabiltzea erortzeko arriskua murrizten dute.

"Mihisea hartu eta margotu, horixe da borrokatzeko dudan modua"

ROUHAIFA KASSEM ARTISTA

Rouhaifa Kassem errefuxiatu palestinarrak Berriz aterpe izan du bere lanak erakusteko

Aritz Maldonado BERRIZ

2023ko urrian, bizileku zuten Libano atzean utzi eta Euskal Herrira heldu ziren Rouhaifa Kassem artista eta bere familia palestinarra, Berrizera. Hile batzuk bertan pasatu ondoren, Bilbora lekualdatu dira oraintsu. Berrizen igarotako denboran margoturiko koadroekin erakusketa egin dute herriko Kultur Etxean; hilaren 11ra arte egon da ikusgai. Artista honi, bere lanei, eta Palestinari buruz gehiago jakin gura dutenek beste aukera bat izango dute martxoaren 21ean, 22an eta 23an, Zaldibarko liburutegi zaharrean. Kassem pozik dago erakusketak egunotan izandako harreragaz.

Zelako lanak batzen ditu erakusketak?

Erakusketaren izenburuak dioen moduan, lanek Palestinako kausa eta borroka transmititu gura dute. Margolanetan, Gazako eta Zisjordaniako emakumeen eta umeen sufrimendua ageri da bereziki, baina Palestina osokoa ikusi daiteke; gainera, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira antolatu dute erakusketak, eta emakume palestinarren pazientzia, sufrimendua eta borroka ere ikusten dira. Erakusketak mezu bat du: orokorrean Ekialde Hurbilean zer



Rouhaifa Kassem, Berrizen.

gertatzen dabilen jakitea jendeak, batez ere Palestinan. Herritarrek bizi duten terrorea, presoak, tortura... ere erakusten ditut. Gertatzen dabilena artista palestinar baten eskutik ezagutze-ko aukera da.

Margolanak Berrizen egin dituzu? Baten bat nigaz ekarritakoa da, baina gehienak Berrizen bertan margotu ditut. Gehiago ere egin ditut, baina erakusketak honetarako horrela ondo geratzen dela uste nuen. Hau lehenengo pauso bat izatea gustatuko litzaidake, eta auke-

ra ona dela uste dut, gainera, berriztarrei, udalari eta Kultur Etxeko kideei erakutsitako babesa eskertzeko. Martxoan zehar Zaldibarren eta Bilbon ere egingo ditut erakusketak. Herrialde osoan zehar egin gura ditut erakusketak.

Zelan eragiten dizu Palestinan gertatzen dabilenak margotzerakoan? Ikusten ditudan irudiak margolanen bitartez adierazten ditut. Nire herriak lez, nik ere sufritu egiten dut. Gurago nuke beste zeozer margotu, emakume eta ume alaiak, adibidez, baina oraingoz ezin dut. Sufrimendu hau ezagutaraztea gura dut.

Zaldibarren eta Bilbon ere egingo dituzu erakusketak.

Mundu guztian zehar zabaldu gura dut Palestinan gertatzen dabilena. Badakigu Mendebaldean Israeliek zabalitzen duen mezua oso onartua dagoena, eta lan handia egin behar da hori aldatzeko: kulturean, kirolean eta beste arlo guztietan ere. Jendeak jakin egin behar du askatasunaren alde borrokan dabilen herri bat dagoela.

Margotzen jarraitzen duzu?

Bai, egunero. Irudi bat ikusi edo ideia bat dudanean, mihisea hartu eta margotu egiten dut, horixe da borrokatzeko dudan modua.

Bizikidetza gatazkak bideratzeko zerbitzua Elorrión

Elorrioko Udalak bizikidetzan tentsioa handitzen duten gatazkak bideratzeko zerbitzua ipini du martxan

A. M. ELORRIO

Elorrioko Udalak bizikidetzan tentsioa handitzen duten gatazkak bideratzeko zerbitzua ipini du martxan. Argi-Begi bitartekaritzaren elkarteak emango ditu saioak, artxoaren 13an hasita. Saioak "egoeraren zailtasunaren" araberakoak izango dira, eta "akordioetara heltzea" dute helburu. "Askotariko gaiak tratatzeko balioko du: animaliak, usain desatseginak, komunitateko mantentze-lanak, jarrera antisozia- lekin loturikoak eta abar", azaldu dute.



Saioak Iturri kultur etxean izango dira.

Zornotzako Belatxikieta 40. urteurrenean murgilduta

Zornotzako Belatxikieta elkarteak 40 urte beteko dituela ospatzeko, ekitaldi sorta antolatu dute udaberriko

A. M. ZORNOTZA

Zornotzako Belatxikieta Herriko Tabernak 40 urte egingo ditu 2025ean. Lau hamarkadako jarduna ospatu eta aldarrikatze-ko, udaberriko ekitaldi sorta egingo dute. Martxoan, apirilean eta maiatzean zehar berbaldiak eta tailerrak egingo dituzte, besteak beste. "40 urte hauek omendu eta ospatuko ditugu, baina dinamika hau ez da omenaldi soil bat. Hau guzti hau martxan ipini badugu, herrikoaren ibilbideak eta bere kultura politikoak aurrera egin dezadan da", azaldu dute.



Elkarteko kideak.

BULEGORAKO ZIGILUAK FOTOLITOAK

Betikoak flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

IBARRETXE KULTUR ETXEAN ANTZERKIA BULTZATUZ 2025

Martxoak 14 · 19:00

75 PUÑALADAS

Sarrerak harreran: SARRERAK Urteak 10€ / Helduak 3€

IBARRETXE KULTUR ETXEAN KANTU LIBURUAREN AURKEZPENA

Martxoak 14 · 18:00

TXALOPIN TXALO

Iurretako 3-7 urte bitarteko ume eta familientzat aurkezpena

Eman izena lekua gordetzeko 94 620 03 42 kultur-etxea@iurreta.eus

Oraindik ez zara ANBOToko whatsapp taldeko kide?

Durungaldeko azken
albisteak jaso gura
badituzu batu Anbotoko
whatsapp kanalera



**Eskaneatu
QR kodea**

* Izan zaitez berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak



Apatan tarteko solairua aterako diote igogailuari

Atxondoko Udalak 2025eko aurrekontuak onartu zituen joan zen asteko udalbatzarrean. Inbertsioen atalean, Euskalerrria kalea Goiko Plazagaz lotzen duen igogailuari tarteko solairu bat aterako diote, hango bizilagunen irisgarritasuna hobetzeko



Euskalerrria kalea Goiko Plazarekin lotzen duen igogailua eta tarteko solairua aterako duten tokia.

Joseba Derteano ATXONDO

Atxondoko Udalak 2025eko aurrekontuak onartu zituen joan zen asteko osoko bilkuran. EH Bilduren (Udal Gobernu) eta EAJren aldeko botoekin, aho batez atera zituzten aurrera.

Aurtengo aurrekontuen zenbateko osoa 2.096.177 eurokoa da. "Herritarren nahiak aintzat hartuz osaturiko aurrekontuak dira eta herriko beharrianak ahalik eta ondoen barneratzen ahalegindu gara", adierazi du Eneritz Agirre alkateak udaleko ohar batean. Aurrekontuetan hainbat inbertsio aurreikusi da. Inbertsio horiez gainera, udalak iazko soberakina ere erabilgarri izango duela gogoratu dute. Beraz, urtean zehar aurrekontuetan sartu bako proiektuak gauzatzeko aukera egongo dela zehaztu dute.

Inbertsio nagusietariko batek herriguneko irisgarritasuna hobetzea du helburu. Beste lan batzuen artean, Euskalerrria kalea Goiko Plazagaz lotzen duen igogailu publikoari tarteko solairu bat gehituko diote, kale horretako 3. eta 4. atarrietan bizi diren bizilagunen joan-etorriak errazteko. Udalak 250.000 euroko diru atala gorde du proiektuaren lehenengo fase honetarako.

Erabilera anitzeko gela

Eskola zaharreko erabilera anitzeko gelan hainbat hobekuntza egingo dute. Besteak beste, argiteria berriztu eta oholtza bat

gehituko dute, askotariko diziplinei loturiko ikuskizunen garapena errazteko. Lan hauek 17.517 euroko diru atala dute eta kopuru horretako 9.626 euro diru laguntzen bitartez estaliko dituzte.

Beste inbertsio bigaz, herri bideak konpondu —22.000 euroko diru atalagaz— eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren prozeduragaz jarraituko dute. Azken honen zenbateko osoa, 32.400 euro, Aldundiko diru laguntza baten bitartez estaliko dute.

Beste inbertsio batez gainera, herri lekuko ur-hodierian konponketa lanak egingo dituzte, ur-ihesak bat konpontzeko. Udala ur-ihesak hedadura neurtzen dabil. Azterketa egindakoan, berau konpontzeari ekingo dio, iazko soberakinetatik.

Horrez gainera, udaleko brigadako langileentzat furgoneta hibrido berri bat erosiko dute. Hartara, energia berriztagarrien aldeko apustua egingo dute. Furgonetaren karga puntua brigadaren pabilioian ipiniko dute.

Azkenik, herriko bizitza "askotariko ekimenekin aberasten" duten egitasmoak diruz laguntzen jarraituko dute: Atxondoko Kultur Mahaira eta Berdintasun Kontseilura 19.000 euro eta 13.736 euro bideratuko dituzte, hurrenez hurren. Berdintasun Kontseiluko zenbatekoaren zati handi bat, 10.000 euro, Aldundiko diru laguntza batez estaliko dute.

Mineral eta erreminta bitxiak Hontzak jasotako dohaintzan

Mañariko museoko Enrike Huerta arduraduna 250 ale inguruko dohaintza bat sailkatzen dabil asteotan

J.D. MAÑARIA

Mañariko Hontza Museoan mila ale dago ikusgai, baina gehiago dira biltegian gordeta daudenak. Eta bilduma haziz doa egunetik egunera. Azkenetariko dohaintza bat Gasteiztik eskuratu dute, 250 ale ingurukoa. Enrike Huerta museoko arduraduna material hori guzti hori sailkatzen dabil eta ale bitxiak aurkitu ditu tartean.

Kuriositateen artean, tribu indigenetan naturako elementuekin egindako erremintak daude. Esaterako, aizto bik ani-

malienez zatiekin egindako heldulekuak dituzte. Edo pizgailu batek oinarri gardena du eta barruan itsas zaldi bat ikusten da, besteak beste. Musika tresnaren bat ere badago tartean: armadillo baten oskolagaz egindako gitarra.

Fosilek eta mineralek osatzen dute bilduma. Mineraletariko bat Australiako igeltsua da, marroi kolorekoa. "Pieza txikia da baina oso polita, kristalizazio bitxia duelako", esan du Huertak. Ametistak eta kuartzoak ere jaso dituzte.



Enrike Huerta mineralak aztertzen eta sailkatzen. HONTZA

Jubilatuen elkarteak urteko batzarra egingo du domekan

J.D. IZURTZA

Urtero data hauetan egiten duen moduan, Izurtzako Erdoitzako Ama jubilatuen elkarteak urteko batzar orokorra egingo du domeka honetan, 13:00etan, jubilatuen lekalean. Lehenengo puntuan, iaz egindakoaren berri emango dute. Ondoren, aurtengo urteari begirako aurrekontuak azaldu eta onartuko dituzte. Urtero legez, elkarteak kideek irteerak eta asteburu-pasaren bat antolatzeko asmoa dute aurrenekoan. Julio Cuestak jubilatuen elkartearen presidentea karguan jarraituko du. Urte askoan elkartearen presidentea izandako Karmelo Irastorzari lekukoa hartu zion Cuestak iaz.

Okm: batzen gaituen distantzia

anboto
kide

BERRIA!

BED'S

- Momentuko deskontuaren gainean %5eko deskontua.

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea

- %15eko deskontua saio solteetan.

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bal eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

ETXEDREAMS

- %10eko deskontua dendako produktu guztietan.

GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran.

HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreran.

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
 - %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologan, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

LA PERLA

- %15eko deskontua sasoiak jartzeko talaso zirkuituan.
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

OSASUN ETXEA

- Zetoz Osasun Etxera eta doako ebaluazio bat egingo dizugu zure gantz, eta muskulu-masaren portzentajearen berri emateko. (Novaline)

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-goagarrietan izan ezik).

TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

URKIOIL GASOLINDEGIA

- Izurtzako eta Otxandiloko UrkiOil gasolindegietan 3 zentimoko deskontua litroko.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan.
- %10eko deskontua papergintzan.

URTXINTXA JOSTAILU DENDA

- %5eko deskontua erosketak guztietan.
- %10eko deskontua 100 €-tik gorako erosketetan.

ZELAI ALAI

- Udalekuetan %10eko deskontua.



Atera etekina txartelari!

**Egin zaitez
Anbotokide:
946 816 558**

Deitu eta
eman izena!



anboto
kide



Anbotokideen
txokoa

MARTXOKO ZOZKETAK



Basa: Basa take away jatetxeko
6 Baoko kutxatxo.



Pirritx eta Porrotx jaialdia, maiatzak 3.
2 sarrera bikoitz.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz.
Zornotza.

Okm:
batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko
eman izena gure webgunean.

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Gobernu taldeko kideak: Navarro, Ajuria, Urrutia eta Maguregi.

Alokairuzko etxebizitza publikoak eraikitzeke prozesua, martxan

Abadiñoko hiru lursail publikotan alokairuzko 130 bat etxebizitza publiko eraikitzeke asmoa dute

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Abadiñoko Udalak arreta ipinidiora etxebizitzaren gaiari, eta, prentsa ohar bidez azaldu dutenez, alokairuzko etxebizitza publikoak eraikiko dituzte herrian, Eusko Jaurlaritzagaz elkarlanean. Muntzaratzen eta Zelaietan dauden hiru lursailetan eraikiko dituzte. Zelaietan Solozabal kalean. Partzela horietariko bat, txakurrentzako gunearen ondoan dagoena, udalak Eusko Jaurlaritzaren esku utzi zuen 2008an, bertan etxebizitza publikoak eraikitzeke. Baina, "zenbait arrazoi

tarteko", ez da hitzarmena garatu. Udal iturriek azaldu dutenez, hitzarmen hori eguneratu egin da eta alde biek konpromisoa hartu dute lehenbailehen martxan ipintzeko. Hori horrela, alokairu publikoko 54 etxebizitza eraikitzea da helburua, eta lanak 2027an hastea aurreikusten dute.

Bestalde, udalak eta Jaurlaritzak beste konpromiso bat ere hartu dutela azaldu dute, legegintzaldi honetan beste hitzarmen bat sinatzea, beste lursail bietan alokairuzko beste 80 etxebizitza eraikitzeke.

Ehun Kilo taldea Koba Liven egongo da irailean

Aurten jaialdiaren laugarren edizioa egingo dute. Irailaren 20an izango da, Abadiñon

M.Z. ABADIÑO

Irailaren 20an egingo den Koba Live jaialdiaren laugarren edizioan Ehun Kilo talde elgoibartarra izango da. Heavy metal doinuak jotzen dituen taldea 1991n sortu zen, eta 1997ko urrian jotzeari utzi zioten. 2017an eszenatokitara bueltatu ziren, eta harrezkero hainbat kontzertu eman dute.

Ehun Kiloko musikariak talde hauekin batera arituko dira Abadiñoko jaialdian: Eclipse, Wolfheart, Suicidal Angels, Before The Dawn, Asgarth, The Electric Alley eta Moonshinerds.



Aurreko edizioko argazkia.

Barron-Serna bikotea nagusi Mallabiko frontenis txapelketan

Euskal Herriko eta Euskal Herritik kanpoko 15 bikotek parte hartu zuten frontenis txapelketa mistoan



Txapelketako irabazleak.

M.Z. MALLABIA

Domekan, martxoak 9, Mallabiko Frontenis Txapelketa mistoa jokatu zen. Bertan, 15 bikotek elkarren aurka jokatu zuten, eta, azkenean, errioxar batek eta burgostar batek osaturiko bikoteak irabazi zuen: Lorena Barronek eta Jony Sernak. Barronek eta Sernak 13-4 menderatu zituzten Laura Saez gasteiztarra eta Julen Insausti iruindarra. Hirugarren postua etxeko bikote batentzat izan zen. Itsaso Pradera eta Andoni Aldape mallabitarrek osatu zuten podiuma.

Mallabiko Frontenis Txapelketa misto orokorrak gainera, eskualdekako txapelketa ere jokatu zen. Eskualdekako txapelketan, Amaia Ariznabarreta eta Mikel Amoros izan ziren irabazleak.

Migrazio eta Elkarbizitza Plana garatuko dute Otxandion

Udala, Hamaika Lore elkarte eta Elhuyar batuko dituen talde eragile bat sortu da; martxoaren 20an batuko da

Aitziber Basauri OTXANDIO

Otxandioko Udalak Migrazio eta Elkarbizitza Plana landuko du, eta, horretarako, datozen urteei begirako lan ildoak zehazteko diagnostia egingo dute. Elhuyar elkarte arduratuko da horretaz, 17.000 euroko aurrekontuagaz. Udala, Hamaika Lore eta Elhuyar ordezkatu dituen talde eragilea sortu da plana garatzeko; irailera bitartean, bost batzar egingo dituzte. Lehenengo batzarra martxoaren 20an egingo dute. Datu kuantitatiboak batu ondoren, bakar-

kako eta taldekako elkarrizketak egingo dituzte; atzerritik herrira etorritako bizilagunei, eta bertakoei ere bai. Maiatzeko datu kuantitatibo eta kuantitatibo guztiak batuta izatea aurreikusi dute, Egoitz Garmendia alkateak azaldu duenez. Hartara, kontraste saioak hasiko dituzte ekarpenak jasotzeko. Kultur Kontseiluan, Kirol Kontseiluan, udalean eta Haur Kontseiluan egingo dituzte, uztailera bitartean. "Migrazioagaz eta elkarbizitzagaz lotuta, herri lez ditugun erronkak definitu



Udalak 17.000 euro erabiliko ditu Migrazio eta Elkarbizitza plana egiteko. IRATI OTADUI

eta lehenetasunak zehaztuko ditugu", esan du Garmendiak. Irailerako diagnostia eginda eta aurrera begirako lan ildo nagusiak zehaztuta egotea aurreikusi dute. Batzar zabal bat egingo dute aurkezpene egiteko.

Garmendiaren berbetan, Otxandiora atzerritik etorri diren herritarren egoera zein den aztertzea, esku-hartze lerro desberdinak identifikatzea eta aurrera begira elkarregaz plangintza bat egitea dira helburuak.

'Txalopin Txalo' kantu liburuxka aurkeztuko dute Iurretan

Aitziber Basauri IURRETA

Txalopin Txalo kantu liburuaren aurkezpene egingo dute, Iurretan, gaur. Ibarretxe kultur etxean izango da, 18:00etan, eta 3tik 7 urtera arteko ume eta familientzako ekitaldia izango da. Jolasez eta musikaz girotutako aurkezpene izango da. Durangaldeko antzinako kantak eta jolasak batu dituzte transmisioan eragiteko, haria eten ez dadin. Mankomunitateak bultzatu du egitasmoa, Labayru Fundazioak gauzatu, eta Berbaro euskara elkarte dinamizatzaile lanetan ibili da. Eskualdeko hamar lagun testigantzak jaso dituzte, eta euren umetako abestiak batu dituzte liburuxkan.

174 metro kubiko banbu kendu dituzte Bekoerreka errekastotik

URA agentziak banbu zurtoinak kendu ditu Zaldibarko Eitzaga auzoko Bekoerrekaren arlo batean



Bekoerrekaren ibilgua, inguruan banburik barik. IREKIA

E.H. ZALDIBAR

URA agentziak ibaiertzak lehenagoratzeko eta espezie inbadi-tzaileengandik babesteko jarduketa bat egin du azken asteotan Eitzagako Bekoerrekaren. Banbu zurtoinak kendu dituzte errekaaren ibilgutik, guztira 600 metro koadroko azaleran, 173 metro kubiko banbu. Lehenengo, gainazaleko zatia ebaki zuten motozerraz, lurraren arrasean. Gero, lurpeko zurtoin eta sustraiak kendu zituzten hondeamakina batez. Horren ondoren, errepassoa egin zuten eskuz, sakabanatuta geratu zitezkeen zutar txatalak erretiratzeko. Azkenik, jutezko manta batez estali zuten ibaiertza.

Lanek lau aste iraun dute. Eusko Jaurlaritzak 32.594 euroko inbertsioa egin du.

Zabalik dago epea Garaiko Asto Trail proban izena emateko

Uztailaren 19an egingo dituzte kirol probak. Izen emateak martxan daude, kronoak.com/eu atarian

E.H. GARAI

Garaiko Triatloi Taldeak hitzordu potoloa antolatu du uztailaren 19rako, eta data hori oraindino urruti dagoen arren, kirol elkar-teko kideak buru-belarri hasi dira lanean. Hiru kirol ekintzagaz prestatu dute aurtengo menua: batetik, mendi martxa bat egingo dute, 16 kilometrokoa eta 700 metroko desnibel positiboa, eta, bestetik, lasterketa bi: luzea eta laburra. Laburrak mendi martxako ibilbide bera izango du, eta luzeak 26 kilometro eta 1.400 metroko desnibel positiboa izango ditu.

Lasterketetako ibilbideek honako ezaugarri hauek izango dituzte: "Ibilbide biek bidezidor ugari dute eta aproposak dira korrika egiteko. Hori bai, ibilbide luzea apur bat teknikoagoa izango da, Oizko mendilerrotik izango da eta, Iturzuritik Astogana-ra", azaldu dute. Izen emateak kronoak.com atarian egin behar dira. Mendi martxan izena emateak 12 euro balio du. Lasterketa laburrerako 18 euro ordaindu behar da, eta luzerako 24. Izena ematen dutenek kamiseta bana jasoko dute.

**BESTE
MODURA
DENONA
DA ONURA**

Martxoak 10-26 / errigora.eus

Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, ardoa, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta jatorrizko prezioan

EGIN
ESKAERA
ORAIN! >>>



errigora



Mallabiko elkarretaratzeko argazkia. NAHIKARI EMAKUME ELKARTEA

Martxoaren 8aren bueltan, aldarri feministak nagusi Durangaldeko kaleetan

Durangaldeko mugimendu feminista kalera irten da asteburuan. Zapatuan mobilizazioak egin zituzten eskualdeko hainbat herritan. Bestalde, domekan Lilakrosa egin zuten. Korrikaldian baturiko dirua minbiziaren kontrako ikerketara bideratu zuten

M.Z. DURANGALDEA

"Oldarraldi faxista eta erreakzionarioaren aurrean", zapatuan Durangaldeko mugimendu feminista kalera irten zen alianzarak sortzearen garrantzia azpimarratzeko eta elkar antolatzea deitzeko.

Martxoaren 8ko mobilizazioek feminismoa aldarrikatu zuten

"faxismoari aurre egiteko" tresna lez. Horrez gainera, krisialdi ekosozialari aurre egitera, Atzerritartasun Legea indargabetzera eta emakumeen eta LGTB pertsonen kontrako erasoak etetera deitu zuten. "Indarkeria matxistak hil egiten gaitu", azpimarratu zuten. Bestalde, domeka goizean doze-

naka lagun batu zen Durangon egindako Lilakrosean. Eguraldi ona lagun, jai giroan korrika egin eta Durangoko kaleak morez jantzi zituzten. Lasterketak kausa solidario bat ere izan zuen; bertan, 4.000 euro baino gehiago batu zituzten, eta dirua minbiziaren kontrako ikerketara bideratu dute.



Durangon manifestazio jendetsua egin zuten.



Zornotzako Ekin enpresako beharginak M8an.



Elorrioko mobilizazioko irudia.



Giro paregabea egon zen Lilakrosean. IRATI OTADUI



Zaldibarko elkarretaratzeko argazkia. DOMINIKA TALDE FEMINISTA



85 urtetik gorako emakumeei omenaldia egin zieten Otxandion.



lurretako manifestazioko argazkia. MAITANE TOTORIKA



Zornotzako manifestazioko argazkia. ZORNOTZAKO M8KO PLATAFORMA

Errigorako produktuak eskatzeko kanpaina, martxan

Eskariak martxoaren 26ra arte egin daitezke. Produktuen banaketa apirilaren amaieran eta maiatzean zehar egingo dute

E.H. DURANGALDEA

Errigorak udaberriko kanpaina hasi du, Nafarroa erdialdeko eta hegoaldeko oliba olio birjina estra, askotariko kontserbak, ardoa, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta jatorriz-

ko prezioan eskatzeko kanpaina. Interesdunek Internetez edo telefonoz egin ahal izango dituzte eskaerak, *errigora.eus* atarian eta (+34) 848 871 223 telefonoan (Hego Euskal Herrirako) eta (+33) 532 093 545 zenbakian (Ipar Eus-

kal Herrirako). Martxoaren 26ra arte egin daitezke eskariak.

Udaberri honetako kanpaina, gainera, berrikuntzekin dator eta honako produktu hauek batu dira eskaintzara: arroz konbentzionala (bonba eta lido aldaerez gainera), dilistak eta txitxirioak, moten arabera banaturiko ar-bendolak (txigortuak eta naturalak), albaka edo belar proventzalekin ondutako fussili pasta, eta sei botilako ardo-sortak (eredu ekologikoan ekoizitakoak guztiak, beltza, zuria eta gorria).



Errigora auzolana.

POLITIKAN
HERRIAREN
ESKUBIDEA -
INDEPENDENTEAK

Animalien ongizatea: ezin da gehiago itxaron

Animalien ongizateaz hitz egitea gero eta ohikoagoa zaigu. Gai honetan ere, gizartea ere aldatzen ari da. Durangon, bi elkarte ditugu kale-katuen koloniak kudeatzen dituztenak: *Durangoko Kalekumeak* eta *MásVida*. Boluntario hauek udalaren baimena dute eta funtsezko lana egiten dute: animaliak elikatu, txipatu, antzutu eta albaitari-arreta eskaintzen diete. Gainera, adopzioak, erreskateak eta informazio-jarduerak ere kudeatzen dituzte.

Hala ere, udalaren eskumenak garatzen jarraitu behar dugu:

- Durangoko katu-koloniek seinalez tapena eta etxolen kokapena zain dute. Batzuk eraikiko diren lursailetan daude; beraz, animalia horientzako jarduketan plan bat behar da.

- Gaur egungo bilketa-zerbitzua lizitazio zain dago eta animalia asko baztertzen ditu.

- Partida ekonomikoa ez da nahikoa animalia guztiak zaintzeko, eta handitzea beharrezkoa da.

Gizartea aldatzen ari da eta herritarren kontzientzia ere bai. "Izaki sentikor" terminoa gero eta konprometituagoa den biztanlerian txertatu da. Alderdi politikoak arlo hauetan hobekuntza-neurriak txertatzeko arduradunak gara. Animalien ongizatea etorkizunera begirako ikuspegi baten adierazle da. Ez da baliabide kontua soilik, baizik eta borondate politikoa eta etorkizuneko ikuspegia. Durango ezin da atzean geratu elkarbizitza bidezkoago baterantz.

DURANGALDEA ASTEON

Gazteentzako eskalada eta rapel eguna apirillean

DURANGO Durangoko Alpino-Tabira mendi taldeak gazteentzako eskalada eta rapel egun bat antolatu du. Apirilaren 6an izango da eta 12tik 17 urtera bitartekoei zuzenduta dago. Atxarte eskalada eskolan egingo dute ekimena. Izen ematea martxan da Interneten. Alpino-Tabiraren lokalean ere egin daiteke, martxoaren 20an, 19:00etatik 19:30era.



Durangoko EAJk Iñigo Urkullu omenduko du

DURANGO Durangoko EAJk Iñigo Urkullu omenduko du, Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakari lez hiru legegalditan egindako lana eskertzeko. Ekitaldia barikuan egingo dute, martxoak 14, Durangoko San Agustin Kulturgunean, 19:00etan. Bertan politika eta enpresa munduko pertsona ezagun ugari egongo dela iragarri du EAJk, baita lehendakari ohia gertutik ezagutzen duten herri-tarrak ere.



Erdian, Remedios Ares udal ordezkariekin eta senitartekoeekin.

Remedios Ares Garciak 100 urte egin ditu

DURANGO Remedios Ares García durangarrak bere mendeurrena ospatu zuen joan zen barikuan, Durangon, bere senideekin eta lagunekin. Mireia Elkoroiribe alkatea eta Jessica Ruiz alkateordea bisitan joan zitzaizkion. Lore-sorta eman eta aitortza egin zioten.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: **Bixente Kapanaga 9 - lurreta**
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko irizirik kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta, Miren Abasolo Txabarri eta Xabier Lazkano Baseta.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala eta Irati Otadui Maiztegi.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



ZENBATU

Irudi bakoitzetik zenbat aurkitu ditzakezu?



MARGOTU

Margotu gurago duzun moduan.





Armarri. SUTXART

"Zaleengandik hurbil gaude erosoan"

MUSIKA Armari laukoteak punk eta oi! doinuekin uztartzen du 80ko hamarkadako hardcorea; euren lehenengo lana aurkeztuko dute Zaldibarko gaztetxean, zapatuan; Cementerio diskoetxe gipuzkoarragaz kaleratu dute lehenengo lanaren edizio fisikoa

A. M. ZALDIBAR

Debuteko kontzertua eman eta urte eta erdi eskasera, Armari laukoteak debuteko diskoa aurkeztuko du. "Ez dugu Zaldibarren jo lehenengo kontzertu hartatik, eta gaztetxea leku berezia iruditzen zaigu, bai lana aurkezteko eta baita lagunak batzeko ere", azaldu du Aritz Aranburu 'Tarran'-ek; beragaz batera, Iune Ruiz eta Martin Sarasketa berriztarrek eta Kepa Bruña arrasatearrak osatzen dute Armari. Lagun arteko festa antolatu dute aurkezpenaren barruan. Armarrigaz batera, Ezta Ilen zaldibartarrek, Worth It berriztarrek, Baixa Permanent katalanek eta Agur gernikarrek joko dute.

Urte eta erdiren ondoren, kontzertua joko duzue.

Aritz Aranburu 'Tarran': Oso gogotsu gaude lehenengo disko hau Zaldibarren aurkezteko, eta

neurri batean da debuteko kontzertutik ez dugulako bertan jo. Gaztetxea, gainera, leku polita da lana aurkezteko, lagunak batzeko, eta gaztetxeko egitaraua bera sendotzeko ere bai. Debuteko Sorginen egin genuen, eta zeozer "handiagoa" egin gura genen aurkezpenarako; bere saioan, Worth It taldeak ere antzeko zeozer egin zuen, lagun arteko festa moduko bat diskoa aurkezteko. Gainera, aspaldi ez dira gaztetxean hardcore doinuak entzuten.

Iune Ruiz: Zaldibarko musika egitaraua Sorgin eta gaztetxe bueltan batzen da urtean zehar, eta guk ere gure ekarpena egin gura genuen. Horretarako, egun osoko egitaraua dago. Arratsaldean, Azken Erromantikoak eta Rocky Violencia binilo jartzaileak egongo dira giroa berotzen, eta gero kontzertuak izango dira

gaztetxean. Funtsean, lagun arteko jai bat egin gura genuen, eta aurkezpena egitea aitzakia bat da (barrez).

Urte emankorra izan duzue.

I.R.: Bai, urte eta erdi polita izan da. Pozik gaude idatzitako abestiekin, diskoa zelan geratu den,

"DISKOA ZUZENA ETA GORDINA DA, FUNTSEAN GU GARENAREN ISLA DA"

"MAIATZEAN EKINEZ JAIALDIAN JOKO DUGU, ETA EKAINEN GORILLA BISCUITS ETA SLAPSHOT TALDEEKIN"

Musika egun osoan bafleetan

"Musikaren eta lagun bueltan" batu guran osatu dute Armari kide eta lagunek zapatuko egitaraua. 18:00etan hasiko da jai, Azken Erromantikoak musika jartzaileen emanaldiagaz.

"Azken urteetan indartzen dabil binilo jartzaileen kultura; gu ere musika eta binilo zaleak izanda, pasio hori konpartitzeko aukera ona zela iruditu zitzaigun", azaldu dute; Rocky Violencia binilo jartzailea ere arduratuko da gaztetxeko kontzertuetarako giroa berotzeaz. Sorgin tabernatik gaztetxera jauzi egingo du egitarauak; kontzertuak 21:30ean hasiko dira. Agur, Baixa Permanent talde katalana, eta Ezta Ilen eta Worth It taldeak igoko dira Zaldibarko gaztetxeko oholtzara Armarrigaz batera. Sarrera hamar euroan erosi daiteke, egunean bertan.



ilusioa egiten digu. Axio eta Anna de Abajo arduratu dira diseinuaz, eta oso txukun geratu dela iruditzen zaigu. Gure iruditegiagaz bat egiten du, gainera.

Disko zuzena geratu zaizue.

A.A.: Diskoa zuzena eta gordina da, gu garena funtsean. Iraupena ere horrelakoa du. Guk horrela ulertzen ditugu Armari, Armarriren jarrera eta hardcorea bera. Garen horretara fidelak izatea gura genuen: lau lagun, hardcore, punk eta oi! doinuekin inguruak.

I.R.: Kontzertuetan ere berdinak gara, gugaz bat egiten duten lekuetan jotzen ahalegintzen gara; zaleengandik hurbil gaudenetan gaude erosoan.

Kontzertu dezente duzue aurrera begira.

A.A.: Maiatzean Ekinez jaialdian joko dugu, eta ekainean Gorilla Biscuits eta Slapshot talde handiekin. Horrelako kontzertuak sari bat dira guretzat, talde txikia garelako. Kartel horiek izan dezaketen oihartzunaz haratago, norberarentzat opari bat dira, gogoan gordeko dituzunak betirako.

I.R.: Erreferenteak diren taldeekin jotzea sari bat da, baina, gainera, lagunekin egin ahal izatea itzela da. Guk jo beharrean inguruko talde batek joko balu, sentsazioa berdina izango litzateke, eta gustura joango nintzateke emanaldira. Horrelako egunez gozatu ahal izatea opari bat da denontzat.

'Ombuaren itzala'-ren proiektzioa, Zornotzan

ZINEMA 'Ombuaren itzala'-k Pello Mari Otaño bertsolaria du protagonista; auzolanean egin dute eta Zornotza lankidetzaren sare horren parte izan da, filmaren ekoizpenean parte hartuta; hilaren 20an izango da proiektzioa, Zelaletako auditoriumean, 19:30ean

A. M. ZORNOTZA

Datorren eguenean, martxoak 20, Patxi Bisquert aktore eta zinemagile gipuzkoarrak zuzenduriko *Ombuaren itzala* filma emango dute Zornotzako Zelaletako auditoriumean; emanaldia 19:30ean izango da. Pelikulak Pello Mari Otaño (Zizurkil (Gipuzkoa), 1867 - Rosario (Argentina), 1910) bertsolariaren bizitza eta lana berreskuratzen ditu; Otaño hainbat bider emigratu zuen Argentinara, eta arrasto sakona utzi zuen han. Hain zuzen ere, ekoizpena auzolanean egin dute, herrialde amerikarrek eta Euskal Herriko herritarren artean. Emanaldia auzolanean parte hartu zuten herritarren artean; dena dela, gainerakoek ere ikusi ahal izango dute, egunean bertan auzolankide egin ez edota eguneko sarrera ordainduta; lehenengo kasuan, 10 euro ordaindu beharko dute; bigarrean, hiru euro. Pelikulak Pello Mari Otaño bertsolari zizurkildararen bizitzako zenbait pasarte



'Ombuaren itzala'-ren grabazioko irudi bat. AIURRI

batzen du. Zizurkilen bertan proiektatu zuten lehenengoz, eta ordutik Euskal Herriko beste hainbat tokitan eman dute. Otaño oso garrantzitsua izan zen, bai bertsolaritzan bai euskalgintzan. Bertsolari familia batean sortua,

lan handia egin zuen bertsoak sortzen eta bertsolaritza biziberritzen. Hain zuzen ere, pelikula hau egitearen helburuetariko bat Otañoen bizipenak ahalik eta jenderik gehienari hurbiltzea da, Zornotzako Udalaren berbetan.



Ache Pa Ti.

Ache Pa Ti, txistua eta jazz latinoak uztartuz, Durangon

MUSIKA Zapatuan Hiruzulo jaialdiaren hirugarren edizioa egingo dute, San Agustin kulturunean, 19:00etan

Aritz Maldonado DURANGO

Ohiko doinuez gainera, txistuak musika modernoagoetara moldatzeko aukera ere baduela erakusteko asmoagaz hasi zen Jaizale elkarteak Hiruzulo jaia antolatzen. Jaialdiak hirugarren edizioa izango du zapatuan, eta Ache Pa Ti boskote nafarra izango da ekitaldiko protagonista; taldeak txistua eta ikutu latindarrak dituen jazz uztartzen ditu. "Tradizioa ez da iraganeko kontu bat, gaur egungoa ere bada, eta, hain zuzen ere, horretarako sortu genuen Hiruzulo jaialdia, txistua beste musika doinu batzuetan integratzeko gai

zela erakusteko", esan du Xabier Etxeita Jaizaleko kideak. Kontzertua 19:00etan izango da, San Agustin kulturunean, doan.

69. Txistularien eguna

Hiruzulo jaialdiaz gainera, Durangaldeko Txistularien Eguna martxoaren 23an egingo dute, domekan, Zaldibarren; 80 bat musikari batuko dira bertan. "Belanaldi desberdinen arteko transmisioa lantzea garrantzitsua da, eta, horretarako, Durangoko Musika Eskolagaz elkarlanean aritzen gara", azaldu du Eleder Iturrieta Jaizaleko kideak.



GAI LIBREAN

IGOR GALARZA INTXAUSTI KAZETARIA

Plana: atseden hartu

Azken asteburuetan ez naiz geldirik egon. Atseden hartu dudala esan dezaket? Bai. Baina ez dut sofan etzanda egonda atseden hartu. Egiari zor, domeka heldu, etxean sartu eta amak esan izan dit asteburuotan: "Kontxo! Bizi da nire seme nagusia!". Tira, egia da ez noala kontatzen zertan ari naizen uneoro, beraz, beti egin behar izaten diet asteburuaren laburpena etxekoei. Agian barikuan eman nien neuzkan planen berri, baina gertatu izan zait plana erabat aldatzea. Hortaz, kontatzen hasi behar. Ikasgelan lez sentitzen naiz, asteburuako laburpenaren aurkezpena egiteko prest. Ondo etorri, beraz, nire azken asteburuako laburpena:

"Zapatua, egia esan, ez zen oso lasai hasi. Laneko kontuekin ekin nion egunari. Gurean, nazioartean lez, urteko egun seinalatuetako bat izan zen. Ez da apurtutako bihotz bat behar; batzuetan onena gauzak joaten uztea dela ikasteko. Eta joan zen goiza. Dena planaren barruan. Aldarriek kaleak aldatu zituzten, egunak ez

batzuen besterik eskatzen. Biharamunak beti izan dira "eta orain zer?" bat Euskal Herriko borroka ugarietan. Oraindik ez dut galdu noizbait biharamun desberdin bat biziko dugun esperantza.

Domeka iritsi zen. Horixe da denbora: geure buruari ezarri diogun zepo bat, tranpa bat. Eguraldi ederra zertoren, eta goizeko lehen orduan palan jolasteko (eta ez jokatzeko) plana geneukan. Baina azken orduan dena

"EZ DA APURTUTAKO BIHOTZ BAT BEHAR BATZUETAN ONENA GAUZAK JOATEN UZTEA DELA IKASTEKO"

bertan behera geratu zen (planak aldatzearen kontuak). Hala ere, eguneko plan potoloa parrillada bat zen; calçotak jateko plana egin genuen. Gainera, berba berri bat deskubritu nuen, 'uher'. Bertsotarako errima bezala apuntatuta. Lagun artean bazkaldu ostean, bizitzaz berba egiten hasi ginen. Hor sentitu nuen benetako atsedena, benetako patxada. Hor gogoratu genuen, besteak beste, bost urte igaro direla pandemia hasi zenetik, gure planek nahitaezko 'pause' bat hartu behar zutela. Ez gara ohartzen igaro den guztiaz, eta, kasu horretan, ez nago ziur igarotzen utzi gura genuenik. Eta abadiño, hain zuzen, atsedenetik urruti amaitu nuen. Abadiño pilotatzaile herrikoiko partidua jokatu bainuen. (Igor umeak idatziko balu lez) Eta gero lotara joan nintzen".

Bizitza planez josteko beharra sentitzen dugu, plan aldaketan edo, are, planik ezaren edertasunaz jabetu barik. Ezer ere ez egitea da noizean behin egin behar duzun hori.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 14

DURANGO Erakusketa

'Formatik haratago' (Mikel Lertxundi).
Arte eta Historia Museoa,
martxoaren 30era bitartean.

DURANGO Erakusketa

Naiara Moralesen lanak.
Ezkurdi aretoa, martxoaren 23ra
arte.

DURANGO Berbaldia

'Etxebizitza negozioaren aurka' (GKS).
Otamotozena auzogunean, 18:30etan.

DURANGO Berbaldia

'Palestina: artea eta kultura gerraren aurka' (Hizlaria: Iman Hammouric Ramallahko Arte Herrikoaren Zentroko zuzendaria eta Palestinian Performing Arts Network sarearen sortzailea). Suargik antolatuta.
Kurutzesantu Museoa, 19:00etan.

ELORRIO Kontzertua

Zeker + The Lio + Nekkta.
Gaztetxean, 22:00etan.

ELORRIO Poesia errezitaldia

Poltsikorako poemak, Amaia Egidazu eta Saroa Bikandigaz (4-8 urte).
Udal liburutegian, 17:00etan.

IURRETA Irteera

Untzillara bizikleta irteera. Iurreta Txirindulari Elkarte.
Iurreta, 09:00etan.

IURRETA Antzerkia

'75 puñaladas' (Txintxaun kolektiboa).
Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan.

IURRETA Liburu aurkezpena

'Txalopin Txalo' kantu liburua. (3-7 urteko umeentzat eta familientzat).
Ibarretxe kultur etxean, 18:00etan

IURRETA Kontzertua

Feile.
Korta tabernan, 20:00etan.

ZORNOTZA Antzerkia

'Zorretan' (Hika Teatroa).
Zornotza Aretoa, 20:00etan.

ZORNOTZA Jaialdia

Zornotzako XI. Gazte Eguna. Alaia + Siriusli + Orrues.
Matrailu Gaztetxean, 19:00etan.

ZAPATUA 15

DURANGO Azoka

Naiz Market.
Zumalakarregi kalean (10:30-15:30)

DURANGO Lehiaketa

Abesti feministen VII. Lehiaketa.
Plateruenan, 19:00etan.

DURANGO Hiruzulo Folk Jaialdia

Ache pa ti taldea.
San Agustin kulturgunean, 19:00etan.

ELORRIO Kontzertua

Sermond's.
Ateneoan, 22:30ean.

IURRETA Irteera

Artxandara bizikleta irteera. Iurreta Txirindulari Elkarte.
Iurretan, 09:00etan.

IURRETA Kontzertua

Broken Salad.
Korta tabernan, 20:00etan.

ZALDIBAR Kontzertua

Armarri + Agur + Baixa Permanent + Ezta Ilen + Worth It.
Gaztetxean, 18:00etan hasita.

ZORNOTZA XI. Gazte Eguna

Txupinazoa eta kalejira, 12:00etan, Bizkargi 1937 zarpantzarrekin eta erraldoiekin. Karropoteoa, 13:30ean. Bazkaria, 15:00etan. Gautxori elektrotxaranga, 18:00etan. Kontzertua: Los Zopilotes Txirrius + Ganibet + Opilak.
Zelaietako karpan, 22:00etan.

DOMEKA 16

DURANGO Antzerkia

'Scrooge eta mamuak' (Khea Ziater).
San Agustin kulturgunean,
18:00etan.

IURRETA Ipuin kontalaria

Amaia Egidazu (4 urtetik gora).
Abadetxean, 17:00etan.

OTXANDIO Bakarrizketa Feminista

'Magma Mia' (Beatriz Egizabal).
Bolalekuan, 18:30ean.

ZALDIBAR Antzerkia

'Miñan' (Artedrama).
Olazar pilotalekuan, 18:30ean.

EGUAZTENA 19

ABADIÑO Ipuinak

Sorgina Txirulina (4-8 urte).
Errota kultur etxean, 17:00etan.

EGUENA 20

ABADIÑO Berbaldia

'Saihestu gogoaz kontrako bakardadea, saihestu gainbehera kognitiboa' (Hizlaria: Iban Onandia).
Txanporta kultur etxean, 18:00etan.

ABADIÑO Musika

Kohatu.
Amarau Arte Fabrikan, 19:30ean.

IURRETA Ekitaldia

Landa eremuko andrei esker ona. Iurreta Landa Eremuko Emakumeak. GAUR ETA BIHAR bideoa, 18:00etan, kultur etxean.
Askondon, 17:30ean.



IXA IXA MUGIMENDUAREN UNIBERTSOA

BERRIZ Dantza

Ixa Ixa Mugimenduaren Unibertsuak Aitzindariak ikuskizuna egingo du Berrizen, milaka emakume mota elkartzen dituen dantza esperientzia.
Martxoaren 15ean, zapatua, Kultur Etxean, 19:00etan.

BARIKUA 21

ATXONDO Jardunaldia

'Irakurketa Etxean. Nor-Nori-Nork (Mireia Delgado). Gurasoei zuzenduta.
Eskolako eraikin zaharrea, 16:30ean.

BERRIZ Antzerkia

'Muna' (Ganso&Cia).
Kultur Etxean, 17:00etan.

DURANGO Kontzertua

Zeharka Flute.
Otamotozena auzogunean, 19:00etan.

ELORRIO Antzerkia

'Lo único que verdaderamente quise toda la vida es ser delgada' (Butaca Zero).
Arriola antzokian, 20:00etan.

ZORNOTZA Kontzertua

Noran + Supercremalleras.
Zelaietako kontzertu gelan,
20:30ean.

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEAN

Looney Tunes: Lurrak eztanda egin zuen eguna
Domeka 16: 17:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

A complete unknown
Barikua 14: 17:45, 20:30.
Zapatua 15: 19:30.
Domeka 16: 19:30.
Astelehena 17: 18:30.
Martitzena 18: 18:30.
Eguaztena 19: 19:00.

Wolfgang

Barikua 14: 18:00, 20:30.
Zapatua 15: 17:00, 19:15, 21:30.
Domeka 16: 17:00, 19:30.
Astelehena 17: 18:00, 20:15.
Martitzena 18: 18:00, 20:15.
Eguaztena 19: 19:00.

La vida ante nosotros

Barikua 14: 18:00, 20:30.
Zapatua 15: 19:30, 21:30.
Domeka 16: 19:30.
Astelehena 17: 18:00, 20:15.
Martitzena 18: 18:00, 20:15.
Eguaztena 19: 19:00.

Looney Tunes: El día que explotó la tierra

Zapatua 15: 17:00.
Domeka 16: 17:00.

Looney Tunes: El día que la tierra explotó

Zapatua 15: 17:00.
Domeka 16: 17:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

Memorias de un cuerpo que arde
Zapatua: 20:00.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

ELORRIXOKO GAZTETXEAN

La doctrina del shock
Eguaztena 19: 20:00.

MALLABIA

KONTZEJUZARREN

'Sufragistak'
Domeka 16: 12:30.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Bridget Jones. Loca por él
Zapatua 15: 20:00.
Domeka 16: 20:00.
Astelehena 17: 20:15.


Paddington: Aventura en la selva

Zapatua 15: 17:00
Domeka 16: 17:00

La memoria infinita
Martitzena 18: 19:00

ZELAIETA ZENTROKO AUDITORIOA

Ombuaren itzala
Eguena 20: 19:30



Joseba Derteano DURANGO

Denboraldi honetan Durangoko Kulturalako aulkian jesartzen den hirugarren entrenatzailea da Aketza Gonzalez. Ordezkoa izatea ez da egoera arrotza bereztat. Bere aurreko esperientzia biak ere horrelakoak izan dira, Zallan eta Portugaleten. Orain, Hirugarren Mailan sufritzen dabilen taldea jaitsierako arriskutik urruntzea du helburu. Bost jardunaldi daramatza Kulturalan. Estrenaldian galdu egin zuten, Alaves C-ren aurka, baina hurrengo lau partiduak positiboak izan dira: garaipen bi eta berdinketa bi. Joan zen asteburuan puntu baliotsua batu zuen Deustun, igoerako kanporaketa jokatzeko borrokan dabilen taldearen aurka.

Deustoren kontrakoa garaipen zaporea duen berdinketa izan zen?

Oso talde ona delako. Partidu itxia izan zen, aukera gutxikoa. Taldeak lan bikaina egin zuen.

Hirugarrenez jarraian, dagoeneko martxan zegoen proiektu batean sartu zara, horrek dakartzan erroreak guztiekin. Zure esperientziatik, horrelako kasuetan zeri heldu behar zaio lehenengo?

Denbora gutxian taldeko konfiantza irabazi behar duzu, horixe da behinena. Lehenengo inpresioa behin ematen da. Proposatzen duzunak funtzionatu duela duela sinestu eta ikusi behar dute. Eta animikoki taldeari bultzada bat ematen ahalagindu behar duzu.

Zelan prestatzen da entrenatzaile bat une garrantzitsu horiei aurre egiteko?

Nire kasuan, proiektuan sinestea ezinbestekoa da. Sinesten baduzu, besteei transmititu behar zaien energiagaz helduko diozu erroreak. Ez da erraza, jakina. Nik bariku batean zuzendu nuen lehenengo entrenamendua, partidu baten bezperan. Jokalari batzuen aurpegiak ez nituen euren izenekin lotzen. Hamakakoa osatu nuen. Ez nuen besterik egin. Ez zegoen beste ezertarako astirik. Esku-frenoa emanda sartzearen sentsazioa da. Baina ilusio handiz lanean jarraitu genuen.

Denboraldiko hirugarren entrenatzailea zara. Zelan aurkitu duzu taldea?

Egoera arraroa da denontzat: jokalarientzat, niretzat, klubarentzat... Normala den moduan, animikoki ukituta dagoen taldea aurkitu dut. Egoera honetara

"Entrenatzea gustuko baduzu, gatz da Kulturalari ezetz esatea"

AKETZA GONZALEZ ARANA (SANTURTZI, 1976) KULTURALEKO ENTRENATZAILEA Santurtziarra Kulturalako entrenatzaile denetik, taldeak gora egin du. Azken lau partiduetan, partidu bi irabazi eta bi berdindu ditu. Jaitsiera urrunago dute orain



Aketza Gonzalez Tabira futbol zelaian.

zelan heldu diren galdetuko zioten euren buruari, nik uste. Gudan ilusioa eta freskotasuna ikusi dituztela uste dut. Gura dugula eta sinesten dugula sentitu dute. Ni neu pozarren nago taldeagaz. Jokalari denak gogotsu, ilusionatuta eta konprometituta ikusten ditut. Ni nagoe netik taldeko jokalari guztiek jokatu dutela uste dut. Deustoren kontra, hasierako hamaikakoa zazpi aldaketa egin genituen. Ez da ohikoa. Jokalari batzuei atsedeen eman gura genien, baina beste arrazoi bat ere bazegoen: taldean lehia sortu gura genuen, gutxien jokatu dutenak gainerakoak estutzeko kapaz diren ikusteko. Eta, egia esanda, lan ikaragarria egin zuten. Nik asko sinesten dut lehiari. Postua kolokan ikusteak zeure burua estutzera zaramatza. Jokalari hori transmititzen ahalagindu gara eta entrenamenduetan igarri egiten da.

Zertan aldatu duzue joko sistema?

Lehen badirudi 5-3-2 sistemagaz jokatzeko zela, eta gu 4-3-3ra pasatu gara. Sistemak moldagarriak dira, modu batera edo

"ASKO SINESTEN DUT LEHIAN. POSTUA KOLOKAN IKUSTEAK ZEURE BURUA ESTUTZERA ZARAMATZA"

bestera garatu daitezke. Ez naiz hertsia horretan. Gainera, elkar ezagutzen gabiltza oraindino eta ezeri ez diot aterik ixten. Hauxe da gure ideia: talde oldarkorra izatea eta aurkariaren zelaian presionatzea. Gero, baloia dugunean bertikalak izan gura dugu.

Zu heldu arte, Kulturalak 20 jardunalditik bitan baino ez du mantendu atea hutsean. Orain, jarraian hiru partidu daramatzazue golik jaso barik. Defentsan sendotasuna berreskuratzea zenuten helburu nagusietariko bat?

Akordioa sinatu genuenean horixe eskatu ziguten, arlo hori sendotzea. Alde horretatik, nik zuzendu izan ditudan taldeetan sekula ez dugu gol askorik jaso, zorionez. Hemen orain arte zuzendu ditudan bost partiduetan oso gol aukera gutxi egin digute. Talde bakoitza mundu bat da eta ez naiz jokamolde bakar batera lerrokatzen, baina, orokorrean, nire taldeak ordenari eustea gustatzen zait.

Durangoko Kulturalak tradizio luzea du Hirugarren Mailan. Jaisteko arriskua gainpresioa da zuretzat?

Niretzat eta nirekin etorri den Txus Gonzalez bigarren entrenatzailearentzat motibazio bat da, bestela ez nintzen hemen egongo. Gainera, Kulturala klub erakargarria da. Entrenatzea gustuko baduzu, gatz da Kulturalaren eskaintza bati ezetz esatea.

Portugaleteko esperientzia kuriosoa izan zen, liga amaitzeko jardunaldi biren faltan batu zinelako. Zelan gogoratzen duzu?

Jardunaldi bi eta igoerako kanporaketa izan ziren. Beasainek kanporatu gintuen, 90. minutuan. Kuriositate modura, Kulturalako jokalari bi Beasainen zebiltzan orduan. Kanporaketa bat zor didatela esaten diet brometan.

Talde bat denboraldi hasieratik entrenatzearen falta igartzen duzu?

Zeure proiektua da, zeure erara moldatua... Gainera, denboraldiaurretik taldea gehiago prestatzeko aukera ematen dizu. Baina, tira, egoera honek ere badu bere zera, baditu gustuko ditudan osagaiak. Esperientzia intentsioak dira.

Futbolaz kanpoko lana, entrenatzaile lana... gogorra da?

Eta hiru seme! Bai, gogorra da. Entrenatzaile nabilenean, denera heldu ezinik nabil. Baina ez nabilenenan, falta igartzen dut.

Abadiño Sokatira Taldea, etxean domina bila

SOKATIRA Abadiñok sokatirako hainbat final hartuko du aste gutxiren barruan. Lehenengo hitzordua zapatu honetan da. Abadiño Sokatira Taldeak denboraldiko lehenengo domina eskuratzea du helburu, hainbat bider podiumaren atarian geratu eta gero

J.D. ABADIÑO

Euskadiko Goma Gaineko Sokatira Txapelketako hainbat txapeldun Abadiñon erabakiko dira. Lehenengo hitzordua zapatu honetan da, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian. Final bi daude: gizonetan 560 kilora artekoa, eta emakumeetan 500 kilora artekoa.

Gizonetan zazpi talde lehiatuko dira: Abadiño, Beti Gazte, Ibarra, Ñapurak, Zuraide, Berriozar eta Txantrea. Beti Gazte da irabazteko faborito nagusia. Lesakako taldeak txapelketa asko irabazi du azken hiru-lau urteetan. Abadiñok podiumaren borrokan ibiltzea du helburu. Denboraldiko lehenengo domina litzateke, aurten hainbat bider laugarren geratu eta gero. Iaz brontzea irabazi zuen pisu honetan. Emakumeetan laugarren postua dute helburu, baina podiuma baztertu barik. Beti Gazte eta Ibarra gehiago dira gaur egun, eta Txantrea ere koskatxo



Emakumeen taldeak 500 kilora arteko finala lehiatuko du.

bat gorago dago aurten, baina abadiñarrak sorpresa ematen ahaleginduko dira.

Martxoaren 29ko finala

Martxoaren 29an, 17:00etan, 23 urtez azpiko finalak jokatu

dira Zelaietako probalekuan. Aurreko urteetan, Abadiñok urrezko domina asko irabazi du maila honetan. Aurten lehia handiagoa dago eta Abadiñok dominen borrokan aritzea izango du helburu.



Indarpaken aurteko aurkezpenean ateratako familia argazkia. INDARPAK

Indarpak klubak hamargarren urteurrena ospatuko du aurten

TRIATLOIA Iurretako kirol klubak 40 bat kirolari ditu gaur egun duatloi, triatloi eta mendi lasterketetan

J.D. TRIATLOIA

2025a urte berezia da Iurretako Indarpak kirol klubarentzat, hamar urte egiten dituelako. Lagun talde batek duatloietan eta triatloietan parte hartzeko 2015ean sorturiko kluba haziz joan da apurka-apurka, eta gaur egun 40 bat kirolari batzen ditu. Denak ez dabilta triatloian. "Kirol mota gehiagori atea zabalik duen kluba da", Jon Mendizabal Indarpakeko kidearen esanetan. Horrela, kirolari batzuk mendi lasterketetan korrika dabilta eta badago asfaltoan zentratuta dabilenik ere.

Kiroletik balioak eta euskara sustatzen ere ahalegintzen dira. Esaterako, azkenengo Korrikan kilometro bat hartu zuten.

Urteurrena ekimen batez ospatzeko asmoa dute. Oraindino ideia bat baino ez da, baina Iurretako jaien inguruan eta umeei begirako ekimenen bat antolatzea gustatuko litzaiekeela adierazi dute.

Babesleak garrantzitsuak dira jarduerara aurrera eramateko eta eskerrak eman dizkiete babesle dituzten Indarpak Precision, GCH, Elorriaga kirolak, Ekana eta Iurretako Udalari.



JOKALDIA

OIHANA AZKORBEBEITIA URIZAR MENDI LASTERKETAK

Esfortzu proba

Urtean behin egiteko ohitura dut. Gaur egin dut aurtegoa, martxoak 11, martitzena. Autoan sartu, Elorriorako bidea hartu, Kanpanzar igo, Udalatx mendi ederrari begi keinu bat egin (gaur ez, gaur ez dut mendian korrika egingo), Arrasateko kaleetan sartu, autoa aparkatu, eta Athlon Kirol Medikuntza zentroan sartu naiz. Bertako langileak agurtu, aldagelara joan, erantzi, kirol arropa jantzi, eta esfortzu probako gelara joan naiz.

Proba egin aurretik, medikuaren ohiko galderei erantzun diet. Aurrekari medikoak, ea alergiarik badudan, ea analitikarik egin dudan aurten, ea lesiorik edo minik izan dudan azken urtean eta abar. Beste ohiko galdera bat da zenbateko maiztasunez egiten duzun kirola. Mendi lasterketei buruzko gaia ere atara dugu, Athlonekoak aspalditik ezagutzen ditut eta. Urteak daramatzat hara joaten, Euskal Selektzioan hasi nintzen garaitik.

Berriketalditxoaren ondoren, malgutasun eta luzatze proba batzuk, eta oreka neurtzeko beste batzuk. Gero, partxe itsasgarriak ipini dizkirate paparrean, elektrodoak. Partxeak ordenagailu batera konektatuta daude, kableen bitartez, eta hango pantailan agertuko da nire elektrokardiograma: nire bihotz-erritmoa, presio artetrial, arnasketa eta abar. Esfortzu probaren (ergometria) bitartez, ariketa fisikoa egitean bihotzak duen jardura aztertzea da helburua. Ariketaren ondorioz, bihotzak indartsuago eta azkarrago ponpatzen du odola, eta arteria koronarioetan gaixotasunik badagoen ala ez ikusten da.

Esfortzu proba korrika egiteko zintan edo bizikletan egin daiteke. Nik beti egin izan dut zintan, gaur ere bai. Probak 15 bat minutu irauten du. Zinta martxan ipini, eta oinez hasten zara. Zinta geroago eta bizkorrago ipintzen dute minutu erdiro: orduko kilometro erdi gehiago. Arineketan gehiago ezin duzunean, me-

dikuak abiadura moteltzen du. Lehenago ere izan daiteke, medikuak nahikoa informazio batzen duenean, baina, normalean, zure esku uzten du noiz geratu. Denoi gustatzen zaigu jakitea noraino ailegatu gaitzkeen eta zein abiaduran jotzen dugun goia.

Athlonen bertan dutxa bat hartu, hango langileak agurtu, autoan sartu, bueltako bidean Udalatxi beste begi keinu bat egin, etxera heldu, eta eguneroko zereginetara ekin diet berriro. Esfortzu probako emaitzak lasterrera bidaliko dizkirate.

Kirolari guztiei lantzean behin esfortzu proba bat egitea gomendatuko nieke, oinarrikoa behintzat. Kirol azterketa horri eskerrak, gure osasun egoera eta sasoi baloratu ahal izango ditugu, eta kirola egitean zein intentsitateraino ailegatu gaitzkeen jakin. Informazio hori izatea ezinbestekoa da gure kirol helburuak finkatzeko. Athlon zentroa aipatu dut nik, baina Durangaldean ere badago nora jo halako proba bat egiteko.

KOMIKIA UNAI GAZTELUMENDI

AHT



GUARDIAKO BOTIKAK

MARTXOAK 14, BARIKUA

09:00-09:00

Mugica, Andra Maria 9 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

MARTXOAK 15, ZAPATUA

09:00-09:00

Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

MARTXOAK 16, DOMEKA

09:00-09:00

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

MARTXOAK 17, ASTELEHENA

09:00-09:00

Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

MARTXOAK 18, MARTITZENA

09:00-09:00

Sarria, Sasikoa 17 - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

MARTXOAK 19, EGUAZTENA

09:00-09:00

De Diego, Inbaurrondo 22. - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

MARTXOAK 20, EGUENA

09:00-09:00

Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

24 ordur zabalik dauden farmaziak dauden zerrendan.

22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak


ZORION AGURRAK

**Aran**

Gure spidey-batmanek 4 urte egin zituen martxoaren 11n. Txokolatada handi baten inguruan ospatu genuen. Zorionak, Aran, familia osoaren partez.

**Mikel**

Zorionak, Mike! 39 urte egin berri, jarraitu suhiltzaile lanetan beti bezain gogor! Portzierto, bonberuen kalendario bat gura dogu!

**Haizea**

Zorionak, Haizea! Konturatu barik 15 urte ja. Mosu potolo bat maite zaitugun guztion partez! Noizko zuk ordaindutako bazkaria?

**Martin eta Arantza**

Zorionak avò ta avò, beste urtebetetze jai bat potzuen bi aldietan ospatuko dogune, urrin baina alkarraz!

**GOZATU GOZOTEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

☎ 661 40 14 00

📘 Gozatu Gozotegia

📷 gozatugozotegia

Urte askotarako!

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrekin batera.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak

Etorri zaituz Anbotoren ordezkaritzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

FILTRO
Sala Verdi (Uruguay)
& La Dramática Errante

Martxoak 23, igandea
19:00etan

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

San Agustín KULTUR GUNEA

BERRIZKO AGENDA KULTURALA

Aintzindariak - Dantza ikuskizuna
Muna - Ganso&Cia
Ombilgo - Intrépido viaje a velocidad cero

Martxoak 15, 19:00
Martxoak 21, 17:00
Martxoak 29, 19:00

INMOBILIARIAK

**ERAIKUNTZA BERRIA**

IURRETA: 2 eta 3 logela. Garajea eta trastelekuak. **276.000 €-tik aurrera.**

AZOKA BERRI: 3 logelako etxebizitzak. Garajea eta trastelekuarekin. **387.000 €-tik aurrera.**

AUKERA:

Dantzari: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. **C.E.E=F 149.000 €**

Matiena: 2 logela eta komuna. Guztiz barriztatua. Bizitzin sartzeko moduan. **C.E.E=G 126.000 €**

ETXEBIZITZAK SALGAI

Ermodo: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia. **C.E.E=E 160.000 €**

Iurreta: Elizalde: Apartamentua. Erdi berria. Etxe osoak kanpora ematen du. Ikuspegiak. Eguzkitsua. Terraza. Ganbara eta garaje itxia. **C.E.E=E 236.000 €**

Abadiño: Bizitzin sartzeko moduan. 2 logela (lehen 3 logela), 2 komun. Ganbara. Garajea eta trastelekuak. Etxe osoak kanpora ematen du. **C.E.E=E 259.000 €**

J.M.Altuna: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. garajea aukeran. **C.E.E=E 315.000 €**

Arkotxa: 3 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. garajea aukeran. **C.E.E=F 293.000 €**

San Inazio: 3 logela, 2 komun eta eskegitokia. 2 terraza. Eguzkitsua. Garajea. Piztina. **C.E.E=E 265.000 €**

Durango: Txaleta. 423 m². 5 logela eta 4 komun. Txokoa. 2 terraza. Lorategia. 4 kotxerentzako garajea. **C.E.E=E 697.000 €**

Berriz: Duplexa. 3 logela, 2 komun. Garaje itxia 2 kotxerentzako. Ikuspegiak. **C.E.E=E 320.000 €**

Baserrria: Berriztatua. 436 m². 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. 4 hektareako lursaila. **470.000 € € C.E.E=F**

GARAJEAK SALGAI

DURANGO: 100 m²-ko lokala. Alde Zaharra. Egokitua. (taberna) **125.000 €**

DURANGO: Bulegoa. Erdialdean. 1.go solairua. **650 €**

PLATERUEN PLAZA: Garajea trastelekuarekin. **23.000 €**

KANPATORROSTETA: Garajea. **13.000 €-tik aurrera.**

IURRETA: Bixente Kapanaga. 117 m². Lokala. **75.000 €**

SAN FRANZISKO: Trastelekuak. 6 m². **3.500 €**

ASTEPE: 40 m². Egokitutako lokala. **70.000 €**

MASPE: 150 m². 112.500 €

ASKATASUN ETORBIDEA: 60 m². Egokitutako lokala. Kearentzako irteera. **125.000 €**

ALLUITZ: 70 m². Egokitutako lokala. Erakuslehiak. **145.000 €**

**ETXEBIZITZAK SALGAI****DURANGO**

Artekalea: Guztiz berriztatua. 2 logela, komuna eta sukaldea. 3.solairua. Igogailurik gabe.

San Inazio auzunea: 3 logela, sukaldea eskegitokiarekin, egongela balkoiarekin eta 2 komun. Garajea eta trastelekuak.

Arkotxa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea eta 2 komun. Ganbara. Garajea.

Barrenkalea: Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekuak.

Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Argitsua.

Barrenkalea: Logela. sukaldea eta komuna. Trastelekuak.

BERRIZ

Berriz: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta tra stelekuak.

AIXONDO

3 logela, komuna, komun txikia, despentsa, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ganbara.

LURSAILAK SALGAI

Iurreta: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatze. Lursailarekin. Ganbara.

Berriz: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatze. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

Markina: Iturreta auzoan. Baserrria salgai. Teilatua konponduta. 12.000 m²-ko lur sailarekin.

Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

BULEGOAK ALOKAIKUAN**ABADINO**

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

DURANGO

Ermodo kalean. 100 m². 2 bulego alokairuan. Garajearekin.

LOKALAK ALOKAIKUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI


Matiena: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

Elorrio: 600 m²-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoak. Jantzia. Lanerako prest.

LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI**IURRETA**

Arriandi industrigunean. 111 m². Bulegoa eta komuna.

Arriandi industrigunean. 400 m². Biltegirako aproposa.



DURANGO: Goienkale: 66,70 m². Egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du (mendebaldea) Erdigunean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzueguneak Egoera onean. Ganbara.



DURANGO: Juan Antonio Abasolo: 95, 25 m². Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Egoera onean. Etxe erdiak kanpora ematen du (ekialde- mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua zonalde berdez eta zerbitzuegunez inguratuta. 14 m²-ko ganbara. Jantzia.



DURANGO: Ambrosio Meabe: 117 m². Halla, egongela, sukaldea, 4 logela eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialdea) Argitsua. Leku onean kokatua, zonalde berdez eta zerbitzuegunez inguratuta. EGOERA ONEAN. Ganbara eta garaje itxia.



IURRETA: Dantzari: 58 m². Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-ekialdea, ipar-mendebaldea) Leku onean kokatua. ITE-a pasatutakoa, ez ditu hobekuntzak behar.



IURRETA: Uralde: 66 m². Egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Balkoia. Egoera onean. Argitsua. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoaldea). Leku onean kokatua. Jantzia. ITE-a pasatutakoa. Ez ditu hobekuntzak behar

**DURANGO**

Artekalea: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **100.000 € / E.E.Z=F**

Barrenkalea: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatze. **LEHEN 150.000 € / ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

Bartolome Ertzila kalea: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Ganbara. **Lehen 170.000 € - Orain 159.000 € / E.E.Z=E**

Frantzisko Ibarra: 4 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. igogailua. **335.000 € / E.E.Z=E**

Juan de Olazarán: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekuak eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

ABADINO

Dendarikoa: Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 € .**

Eskolakoa: Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekuak. **325.000 € / E.E.Z=G**

Txanporta plaza: Eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **253.000 € / E.E.Z=Bidean**

AIXONDO

Artekalea, 13: Konpontzeko baserrria lursailarekin. **300.000 €.**

BERRIZ

Murgoitio auzoa: Berreraikitze baserrria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**

Eitua: Berreraikitze baserrria lursailarekin. **350.000 €**

GARAI

Momoitio auzoa: Etxebizitza eraikitze lursailak. Aukera ezberdinak.

IURRETA

Bixente Kapanaga: Zaharberritzeko etxebizitza. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **95.000 € / E.E.Z=F**

IZURITZA

Elizalde auzoa: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 620.000 € ORAIN 570.000 € / E.E.Z=E**

GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO

Durango eta Iurretan, aukera desberdinak.

LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI / ALOKATZEKO

Informazio gehiago bulegoan.

PISUAK ALOKATZEKO

Informazio gehiago bulegoan.



Koherentzia

Elkar mugituz egingo dugu da 4. Euskaraldiaren leloa. Elkarlanaren ispiritua antzematen da esaldi horretan, eta hobe askoren artean indarrak batuz gero. Hala, berriro ere milaka norbanakok emango dugu izena datozen egunetan euskararen erabilera areagotzeko ariketa erraldoian. Ahobizi edo belarriprest txapa jarri, eta segi! Duda barik, gure hizkuntzak ahoz ahoko transmisioaren bidez bizirik iraun dezan, Euskaraldia zein beste egitasmo asko bideratu beharko dira. Hala ere, une honetan, ekimenei baino garrantzi handiagoa emango dugu noke koherentziaz jokatzeari, eta koherentzia gutxi ikusten dut nik bazterretan. Esaterako, gero eta gehiago dira euskara eskakizunak diskriminatzaileak direla argudiatuz, ezbaian jarritako lan-deialdiak. Bada, horren aurrean, Bizkaiko Foru Aldundiaren asmoa da "segurtasun juridikoaren" izenean, lan-eskaintza publikoko postuen erdiei baino ez ezartzea derrigorotasun data. Marka da gero, oldarraldi judizialari kontra egiteko estrategia izatea oldarraldiaren edukietara egokitzea! Nire ustez, badago beste bide bat: Diputazioa eta Jaurlaritza elkar mugituz egitea aurka erasoei. Egundo baino abertzaleago dugu agintaritzak, beraz, koherentzia izan dadila euskararen kontrako ebazpenen aurrean erabilitako estrategia.

AKUILUA

"Herritarrek eurek eman diote bizia tabernari, apurka"

ANDER ALBERDI SARRAOA SUKALDARIA

Ander Alberdik (Elorrio, 1984) iazko San Blas egunean zabaldu zuen Zelaietako Jubilatuen Taberna. Bertan, adindunak, nagusiak, gazteak eta umeak batzea lortu du



Ander Alberdi, Itamar Aguado lankideagaz.

Aitziber Basauri ABADIÑO

Catering enpresa batean sukaldari lana utzi, eta bide berri bati ekin zion Ander Alberdik iaz, Zelaietako Jubilatuen Tabernan. Izandako harreragaz pozarren eta eskertuta dagoe-laz azaldu du.

Zelan joan da urtea?

Ikusgarri! Ez gara geratu ere egin. Lehenengo hileak oso gorrak izan ziren, neu bakarrik nengoelako. Baina irailean lantaldea handitu, eta eskaintza zabaltzen hasi gara. Jendearen erantzuna egundokoa izan da.

Ondo hartu zaituzte herrian.

Itzelean! Aita eta aitita abadiñarrak dira, gainera. Herriko beste bat lez hartu naute.

Norabide aldaketa handia izan zen taberna hartzea.

Bizitzako erabakirik zentzuba-koenatariko bat izan zen, logikatik begiratuta behintzat (barrez). Kontratupean egoteak ematen dizun segurtasuna utzita hartu nuen jubilatuen taberna. Saltoa ematera ausartu nintzen, pentsatuz ondo irten ezean beti izango nuela sukaldean lan egiteko aukera. Ea herrian taberna bat eraman nuen, lehia-keta publikoan hartuta orduan ere, eta esperientzia ona izan nuen, lantaldeagaz ere bai. Gustatzen zait neure kabuz aritzea.

San Blas egunez zabaldu zenuen.

Bai, azken 40 urteetako San Blas egunik onenean! Hasiberria nintzen ni. Eta azkena izan nintzen taberna ixten.

Jubilatuen taberna den arren, askotariko bezeroak dituzu.

Aniztasuna eta pluraltasuna gustatzen zaizkit, beti ere albokoa errespetatuta. Denentzat zabalik dagoen taberna da: helduak, gazteak, umeak, txakurrak... jai giroan zein karta-jokoan egoteko. Lehenengo egunetik egunkari guztiak ditut,

eta, auzoko premiei erantzun guran, ogia saltzen dut domeketan. Niretzat ezinbesteko bezeroa dena, jubilatua, ondo mimazen dut, detailezalea naiz. Jatekoagaz ere bezero asko erakarri dudala esango nuke. Herritarrek eurek eman diote bizia tabernari, apurka. Giro polita sortzea lortu dute. Hori baino ederragorik eta osasuntsuagorik! **Kontzertuak dituzue hilerok.**

Bai. Herriari begira askotariko ekintzak antolatzen ahalegintzen naiz. Baita herriko elkarteekin kolaboratzen eta herriaren bizitasunean parte hartzen ere.

Lan handia da denak pozik izatea?

Ez! Lanean asko gozatzen dut eta asko jasotzen dut bueltan bezeroengandik. Adibidez, landare zimelduren bat eraman dute inoiz tabernatik, eta bizi-bizirik ekarri; zurezko totem bat ere egin digute. Taberna erakitzen parte hartzen dute bezeroek. Pozarren nago.

Errazioak eta pintxoak ez ezik, as-teburuan afariak ematen dituzue.

Bariku-zapatuetan hanburgesak ditugu. Eta enkarguz bada, denarik dugu: paella, arraina, tartar-a, foie-bonboia..., sukalde txikia dugun arren. Asteburuetan, txibierroek eta zamburiñek arrakasta handia dute.

Zein asmo duzu aurrera begira?

Taberna mantendu eta finkatzea; hobetzen joatea. Bertako ekoizleentzat gune bat sortu gura dut.

"ASKO GOZATZEN DUT TABERNAN LANEAN, ETA ASKO JASOTZEN DUT BUELTAN BEZEROENGANDIK"

GOI-MAILA:

- Bioteknologia - Elkagaien industriako prozesuak eta kalitatea
- Administrazioa eta finantzak
- Web aplikazioen garapena
- Automatizazioa eta robotika industriala
- Mekatronika industriala
- Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa

ESPEZIALIZAZIO IKASTAROA:

- Zibersegurtasuna eragiketa-teknologiaren inguruneetan

LHEZIKETA BATXILERGOA HEZKUNTZA ESKAINTZA

ERDI-MAILA:

- Mantentze-lan elektromekanikoa
- Beroa sortzeko instalazioak
- Instalazio elektriko eta automatikoetako teknikaria
- Elkagaiak elaboretzeko teknikaria
- Soldadura eta galdaragintza

Ate irekiak

MARTXOAK 29

LANBIDE HEZIKETA 10:30
BATXILERGOA 11:00

Aforo mugatuak. EMAN IZENA!

lea artibai
IKASTETxea

leartik.eus

MARKINA-XEMEIN

in @ f t x